

**TESTU-MOTA:** Dibulgazio-artikulua

**IKASTETXEA:** Orereta Ikastola

**MAILA eta GELA:** DBH1A

**IRAKASLEA:** Sara Aramendi Moreiro

DBH1. mailakoekin 2. ebaluazioan euskal kulturarekin lotutako unitatea landu dugu eta horrekin zerikusia zuen gaia aukeratu ondoren dibulgazio-artikuluak idatzi behar izan dituzte. DBH1A gelako Ibai Bagues eta Kaiet Elizechea ikasleek idatzitakoa izan da ikaskideen artean arrakasta handiena izan duena.

## **JAI ETA JAI, EUSKAL HERRIAN PARRANDA BAI**

Ibai Bagues eta Kaiet Elizechea

Ba al dakizue zergatik garen Euskal Herrian hain festazaleak? Euskal Herrian festa ezagun asko daudelako. Alde batetik, Nafarroan, Iruñeako San Ferminetan zezenak dira protagonista. Bestalde, Gipuzkoan, Donostiako danborrada oso famatua da, giro bikaina sortzen da bertan. Azkenik, Bizkaian, Bilboko Aste Nagusia da garaile. Ziur entzun duzuela haien inguruan, baina xehetasunik ez duzuela ezagutzen. Hemen duzue!

### **ZEZEN JAIA, IRUÑEAN UZTAILEAN**

San Ferminak Iruñean, Nafarroan, egiten den festa bat dira. Aipatutako festa uztailean ospatzen da, hain zuzen ere, hilaren 6tik 14ra. Historiari dagokionez, Iruñeako jaia, XII. mendean hasi zen ospatzen. Haren arrazoiak, ikuspuntu erlijioso



batetik, San Fermin Iruñeako lehenengo gotzaitzat hartzen dela da, eta bere omenez ospatzen da jaia. Hortaz aparte, San Ferminak ez dira zezenak eta musika bakarrik, adin guztietarako jarduerak egoten dira. Oso jai anitzak direnez, munduko zazpi festa ospetsuenetarikoen artean daude. Hori ez da arrazoi bakarra, parranda eta alaitasun handia dituztelako ere famatuak dira. Festako janari tipikoenak txurroak dira. Urdaiazpikoa, magra eta arrautza frijituekin egindako platera ere asko jaten da. Amaitzeko, egunero goizeko 08:00etan egiten diren entzierroak festaren tradizioarik

ezagunena dira. Festen itxiera hilaren 14an egiten dute “Gaixoa Ni” abestiarekin batera festak amaitutzat ematen dituzte.

## **DANBORREZ DANBOR HALAKO JAIA**

Danborrada Donostian egiten den jaia eta desfilea da. Aipatutako jaia urtarrilaren 20an 00:00etan ospatzen hasten dira eta gauerdiko 24:00etan bukatzen dute.



Jatorriari dagokionez, ez da denek uste duten bezalakoa, danborradak ez du jatorri zuzenik napoleondar gerretatik. Haren jatorria 1863koa da, hiriko harresiak bota zituztenekoa, Donostia gotorleku militarra zen eta goizero desfile militar txiki batek zeharkatzen zuen Alde Zaharra, San Telmo kuarteletik, gaur egun San Telmo Museoa dagoen lekutik, harresietako lurraren ateraino, gaur egun Bulebarra dagoen tokiraino, guardia aldaketa egiteko. Egunero desfile militar horien imatazio parodiko bat sortzea erabaki zuten azkenean, horregatik ospatzen da festa. Jarraitzeko, urtarrilaren 19ko gauerdian, Konstituzio plazan hasten da hiriko banderaren altxaera Raimundo Sarriegiren San Sebastian martxa abestiarekin batera. Horren ondoren, 24 orduz ehunka danborradak hiri guztian jotzen dute. Alde batetik, jendea elkarteetan eta sagardotegietan elkartzen da jateko. Bestalde, Gipuzkoako gastronomiako, pintxo edo platerak jaten dituzte. Adibidez, angula txikiak baratxuri eta piperminarekin, kokotxak saltsa berdean, bakailoa pil-pil saltsan etab. Hortaz aparte, aipatutako danborradan jotzen diren abesti edo pieza gehienak Raimundo Sarriegi musikagile donostiarrak konposatutakoak dira, Txuri-Urdin erreserki ofiziala eta beste pieza batzuk izan ezik.

## **BIZKAIAKO JAIA, AUPA MARIJAIA!**

Hasteko, Bilboko Aste Nagusia Bizkaiko hiriburuko festa nagusia da. Aipatutako euskal festa, bederatzi egunez zehar ospatzen da. Hain zuzen ere, abuztuaren 15aren ondorengo larunbatetik hurrengo iganderarte. Historiari dagokionez, 1882an hasi ziren Bilboko Aste



Nagusia, Begoñako Andre Mariaren omenezko jaiekin uztarturiko udako ospakizuna bezala ospatzen. Txipiroiak bere tintan, patata-tortilla, marmitakoa edo bakalaoa pil-pil saltsan dira festan jaten diren plater tradizionalenak. Alde batetik, Aste Nagusiko ohiturarik nabarmenatariko bat konpartsak dira, 28 konpartsa daudelako eta beraien artean ekitaldiak sortzen dituztelako, adibidez, lehiaketa gastronomikoak, hiri krosak, konpartsen arteko lehiak, haurrentzako ekitaldiak... Bestalde, beste ohituretako bat, Bilboko Aste Nagusian pregoilaria urtero izendatzen dutela da, hirian ezaguna den edo hiriarekin lotura handia duen pertsona izaten da gehienetan. Bilboko Marijaia, bederatzi egunez festan egonez erraldoi bezala, azkeneko egunean erre egiten dute "Agur, Marijaia" izena duen abestiarekin. Euskal Herriko jaietan parrandarik ez da falta, aprobetxatu!